

**BIZKAIA 21 EGITASMOA  
(2011-2016)  
BUKAERAKO TXOSTENA**  
*EMAITZAK, LORPENAK, EBALUAZIOA*

EMAITZAK, LORPENAK, EBALUAZIOA

BUKAERAKO TXOSTENA



**2017ko apirila**

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2. Bizkaia 21 EGITASMOA NOLA LANDU DEN .....</b>	<b>4</b>
2.1. I. Bizkaia 21 Egitasmoa (2005-2010) osatzeko lanak .....	4
2.2. I. Bizkaia 21 Egitasmoa (2005-2010) berrikusteko lanak .....	5
2.3. II. Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) osatzeko lanak .....	6
2.4. Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) zenbateraino bete den ebaluatzeko lanak.....	7
<b>3. BIZKAIA 21 EGITASMOA (2011-2016): HEDAPENA.....</b>	<b>8</b>
<b>4. PRESTAKUNTZA.....</b>	<b>9</b>
<b>5. TXOSTENAK ETA MEMORIAK .....</b>	<b>10</b>
<b>6. LORPENAK .....</b>	<b>11</b>
6.1. Ekimen Bikainen Katalogoa .....	11
6.2. Jardunaldiak: Tokiko iraunkortasunari buruzko Bizkaiko Topaketak.....	15
6.3. Hiri eta Herri Iraunkorrei buruzko VIII. Konferentzia (ICLEI).....	15
<b>7. LORPEN OBJETIBOAK. ZENBAIT ADIERAZLE GARRANTZITSU .....</b>	<b>16</b>
<b>8. ERANSKINAK.....</b>	<b>20</b>
8.1. III. Eranskina: iraunkortasun-eragileak .....	20
8.2. IV. Eranskina. Bizkaia 21 Egitasmoaren hedapena. Egitasmoa garatzeko eta inplementatzeko produktu eta zerbitzuak .....	21

## 1. SARRERA

Dagoeneko 20 urte dira Bizkaiko Foru Aldundiak iraunkortasunaren alorrean lanean diharduela. Horretan, 2004. urtera arte, Ingurune Naturala Zaintzeko Saila bakar-bakarrik aritu zen.

BIZKAIA 21 EGITASMOAREN AURRETIK	
1998	“Bizkaiko Foru Aldundia eta Agenda 21 programaren aplikazioa” dokumentua idatzi zen.
1999	Ingurumenerako Eskubideari buruzko Nazioarteko Mintegiaren barruan, eta UNESCOren eta Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren babespean, “Ingurumenerako Eskubideari buruzko Bizkaiko Deklarazioa” promulgatu zen. 1999-2003 legegintzaldirako leloa: “2003 Helburua: Iraunkortasuna eta Ongizatea”.
2000	Europako Hiri eta Herri Iraunkorrei buruzko III. Konferentzian, Hannoverreko Deialdia onartu zen egun berean, otsailaren 11n, Bizkaiko Foru Aldundiak hura publikoki babestea erabaki zuen.
2001	Bizkaiko Foru Aldundiak bat egin zuen Europako Batzordeko Hiri Ingurumenari buruzko Aditu Taldeak zuzendutako “Towards a Local Sustainability Profile: European Common Indicators” ekimenarekin. Bizkaiko udalerrietako Iraunkortasun Adierazleen Sistema definitu zen.
2002	Adierazleak kalkulatzeko aplikazio informatikoa garatu zen. Bizkaiko udalerrietako Iraunkortasun Adierazleen Sistema kalkulatu zen.
2003	2003ko martxoaren 31n, Iraunkortasun Adierazleei buruzko Europako Jardunaldia egin zen, Bilbon. “Bizkaiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema” dokumentua banatu zitzaien udalerriei.
2004	Bizkaiko Lurralde historikoko adierazle-sistemaren kuantifikazioaren jarraipena. Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak, iraunkortasuna Foru Aldundi osora eraman beharraz oharturik, gogoeta-fase bati ekin, eta lan hori erraztuko zion baliabide bat sortzea ezinbestekoa zela ondorioztatu zuen.

Iraunkortasuna, baina, Bizkaiko Foru Aldundi osora eraman beharra zegoen; eta, horretaz jabeturik, Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak bere motibazioen berri eman zion Ahaldu Nagusiaren Kabineteari.

### BIZKAIA 21 EGITASMOA LANTZEKO MOTIBAZIOAK

Foru Aldundiak garapen iraunkorraren alorrean egin beharrekoari buruzko lehen gogoetagaia zehaztu beharra.  
Foru Aldundiaren jardueretan iraunkortasun-irizpideak txertatzeko ildo estrategikoak diseinatu beharra.  
Foru Aldundiko sail guztiek iraunkortasunaren alorrean erdietsi beharreko helburu espezifikoak definitu beharra, haietako bakoitzari zer kudeaketa-adierazle zegokion esplizitatzeaz batera, sail bakoitzak hartutako konpromisoen jarraipena egin ahal izateko.  
Administrazioko jardueretan diziplinartekotasuna sustatu beharra, gure lurraldean garapen iraunkorra bermatzeko garrantzi handia zuten lan-esparru guztiak ondo koordinatzeko.  
Foru-administrazioan bertan kultura parte-hartzailea babestu beharra, antolaera-sistema berezi baten bitartez, politika sektorial guztietan iraunkortasun-printzipioak inplementatzea helburu nagusi hartuta

Ahaldu Nagusiak, egitasmoari baldintzarik gabeko babesa eman, eta bere gain hartu zuen programa garatzeko ardura. Hala, proposamena zehaztu, premiak definitu eta egin beharrekoen berri eman zitzaien Foru Aldundiko zuzendaritza nagusi guztiei.

### AHALDUN NAGUSIAK ZUZENDARITZA NAGUSIEI IGORRITAKO PREMIEN ZERRENDA

Maila goreneko lidergoa eta Foru Aldundiko arduradun politikoen onarpen politiko eta teknikoak.  
Foru Aldundiak garapen iraunkorraren alorrean defendatzen duen posizioaren oinarriko alderdiak aho batez onartu eta babestu beharra.  
Foru Aldundiko sail guztiek egitasmoan parte hartu eta elkarrekin lan egin beharra.  
Egitasmoan parte hartzen duten eragileen arteko koordinazioa eta beren arteko etengabeko komunikazioa sustatu beharra, prozesuaren zeharkakotasuna bermatzeko.  
Barne-lantalde bat sortu beharra, teknikalari eta politikariz osatua, landu beharrekoen gaineko gogoeta- eta eztabaida-saioak antolatuz.

## 2. BIZKAIA 21 EGITASMOA NOLA LANDU DEN

### 2.1. I. Bizkaia 21 Egitasmoa (2005-2010) osatzeko lanak

Aurreko puntuan aipaturiko premiak sakon aztertzeko, zuzendaritza nagusien ordezkariak eta haiek izendatutako teknikariak AMIA analisi bat egin zuten, eta hauek izan ziren analisi horretatik ateratako ondorioak:



Bizkaia 21 Egitasmoa (2005-2010) osatzeko lanen eskema.

#### BARNE-PROZESUAREN ONDORIOAK

“Garapen iraunkor” kontzeptua eguneroko lanean aplikatzea da zailtasuna.

Bizkaiko Foru Aldundiak egitasmo ugari ditu martxan, iraunkortasunaren hiru alderdiak uztartzen dituztenak. Egitasmook eredutzat hartu beharko genituzke, eta sail guztietara zabaldu.

Prozesua bukaturik, argi dago nork dinamizatu behar duen Garapen Iraunkorraren aldeko prozesua.

Ezinbestekoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiaren organigrama funtzionala egokiena den eztabaidatzea, bi hauek bete daitezkeela bermatzeko:

- Eragileek lan-ildo estrategiko guztietan parte hartzen dutela.
- Baliabideak ahalik eta modurik eraginkorrean erabiltzen direla.

Ezinbestekoa izango da udal mailako ardurak dituzten eragileak kontzientziatzearen eta prestatzearen alde lan egitea, udalerrien autonomiaren gaineko kezkarik piztu ez dadin.

Gerta liteke, hala ere, zenbait xedapen eta arau promulgatu behar izatea eta horrek, udalerrien autonomia urratu ez arren, udal mailako ekimenei gutxieneko iraunkortasun-estandar ezartzea.

Administrazioen arteko lankidetzak areagotu behar da, eta orain arte nagusi izan den eskumen zurrunen eskema gainditu, horrek praktikan jartzen diren politiken eta ekimenen koherentzia distortsionatu besterik ez baitu egiten.

Foru Administrazioaren kudeaketa eraginkorra izango bada, ezinbestekoa da iraunkortasuna izatea gure politiken ardatz nagusia.

Lantalde bakoitzaren emaitzen heterogeneotasuna dela tarteko, lau prozesu jarri ziren abian proposamena zuzendaritza nagusietara igorri aurretik.

#### PROPOSAMENA ZUZENDARITZA NAGUSIETARA IGORRI AURREKO LAU PROZESUAK

1	Informazioaren trataera konparatua
2	Proposamenen birformulazioa
3	Iraunkortasunaren alorrean hizkuntza ortodoxoa erabiltzearen aldeko ahalegina
4	Sailka antolatutako lan-ildoak Aalborgeko Konpromisoekin uztartzea

Lau prozesu horietan lortutako emaitzen berri Zuzendaritza Nagusiei eman, eta haiek in ados jarri ondoren, dokumentua Gobernu Kontseilura bidali zen, proposamena loteslea izan zedin eta Bizkaiko Foru Aldundiak bere eguneroko jardunean aplikatu zezan. Horren ondorioz:

“Bizkaiko Foru Aldundiak, 2005eko azaroaren 22an bildurik, «Bizkaia 21: Garapen Iraunkorraren aldeko Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategia» egitasmoa onartzea erabaki zuen” (BAO, 15. zk., 2006, urtarrilaren 23a, astelehena).

Behin betiko dokumentua Aalborgeko 10 konpromisoetan ardaztuta zegoen, eta konpromiso horiek, berriz, ildo estrategikotan antolatuta. Ildo horietako bakoitzak helburu espezifiko batzuk hartzen zituen barnean, eta helburu bakoitzak, berriz, jardunbide konkretu batzuk, denbora jakin batean bete behar zirenak. Horretarako, helburu bakoitza zenbateraino betetzen zen zehazteko, adierazleak definitu ziren, eta ardurak sail bati ala bati baino gehiagori nola eman erabaki.



Bizkaia 21 Egitasmoa (2005-2010).

## 2.2. I. Bizkaia 21 Egitasmoa (2005-2010) berrikusteko lanak

Bizkaia 21 Egitasmoaren indarraldia bukatutakoan, haren indargune eta ahulguneak aztertu, eta hara zer ondorio atera genituen:

BIZKAIA 21 PROGRAMA (2005-2010): INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK	
INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Egitasmoaren egituraren egokitasunari buruzko adostasuna.	<p>Lidargo politikoak argia izan behar du, eta Egitasmoa agenda politikora eraman, hura politikoki lantzeko beharrezkoak diren egiturak sortu eta sendotuko badira.</p> <p>Beharrezkoa da Egitasmoaren baitan komunikazio- eta ezagutza-bide apropos eta argiak sortzea; tartean baita Iraunkortasun Eragileen aitortza ere.</p> <p>Bizkaia 21 Egitasmoa Aldundiko sail guztietara eraman behar da.</p> <p>Kontrol- eta jarraipen-eredu soil bat garatu behar da.</p>

### 2.3. II. Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) osatzeko lanak

Aurreko premisetan oinarriturik, Bizkaia 21 Egitasmoaren bigarren faseari ekin genion, eta hura osatzeko lanak antolatzeke metodologia definitu genuen.



Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) osatzeko lanen eskema.

BIZKAIA 21 EGITASMOAREN BIGARREN EKINALDIRAKO LAN-METODOLOGIA	
	<b>Eztabaida-taldeetako parte-hartzaileak</b>
1. fasea	Iraunkortasun-eragileak (Bizkaiko Foru Aldundiko teknikariak). Bizkaiko Foru Aldundiko beste teknikari batzuk (Barne Eragileak). Bizkaiko Foru Aldundiak identifikatutako kanpo-eragileak.
	<b>AMIA analisia</b>
2. fasea	2.1. Bizkaiko Foru Aldundia iraunkortasunaren alorrean zer-nolako egoeran zegoen zehaztu. 2.2. Helburu eta estrategia berriak definitu.
	<b>Geroa Aztergai tailerrak</b>
3. fasea	<b>ALDERDI POSITIBOAK:</b> Zer egin Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen-esparruan Bizkaiaren geroa bermatzeko? <b>ALDERDI NEGATIBOAK:</b> Zer ez egin Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen-esparruan Bizkaiaren geroa ez zapuzteko?
	<b>Ildo Estrategikoei eta Helburu Espezifikoiei buruzko tailerrak</b>
4. fasea	<b>Aztergaiak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Balorazio positiboa (aurreko fasea).</li> <li>- Bizkaia 21 Egitasmoarekin bat etor litezkeen Bizkaiko Foru Aldundiaren programak.</li> <li>- Beste lurralde-esparru batzuei buruzko aholkuak.</li> </ul> <b>Lorpenak:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ildo estrategikoak.</li> <li>- Helburu espezifikoak.</li> </ul>
	<b>Jardunbideen zehaztapena</b>
5. fasea	Sail bakoitzak 4. fasean zehaztutako helburu espezifikoak betetzeko jardunbideak definitu zituen, bai eta jardunbideon jarraipenerako adierazleak ere.



Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016).

## 2.4. Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) zenbateraino bete den ebaluatzeko lanak

### JARRAIPEN-HELBURUAK ETA BIZKAIA 21 EGITASMOAREN HEDAPENA

Bizkaia 21 Egitasmoaren eguneratzearekin hasitako partaidetza-prozesuari eustea.

Iraunkortasun-eragileei aholkularitza/laguntza eskaintzea Bizkaia 21 Egitasmoaren jarraipen-prozesuan.

Jarraipen eta Ebaluazio Planean aurreikusitako baliabideak garatzea.

Barne- nahiz kanpo-komunikazioarekin lotutako alderdiak lantzea.

Barne-prestakuntza eta sentsibilizazio-kanpainak antolatzea eta dinamizatzea.

Bizkaia 21 Egitasmoaren bigarren ekinaldirako informazioa biltzeko lana iraunkortasun-eragileen esku geratu zen.

*“Bizkaiko Foru Aldundiko Sail edo Zuzendaritzak ordezkatzan dituzten pertsonak dira, eta honela definituko ditugu: “Bizkaia 21 Egitasmoa Sail bakoitzean garatzeko ardura duten teknikari, koordinatzaile eta dinamizatzaileak”; haiek izango dira Ahaldu Nagusiaren Kabinetearen (hau da, Bizkaia 21 Egitasmoaren aginte-taldearen) solaskide nagusiak, eta Sail bakoitzean Egitasmoak zer-nolako martxa duen aztertuko dute, harekin lotutako proiektuak eta prestakuntza-saioak antolatuko dituzte, eta informazioa zabalduko dute.”*

(BAO, 101. zk., 2007, maiatzaren 24a)

### IRAUNKORTASUN-ERAGILEEK BIZKAIA 21 EGITASMOAN SISTEMATIKOKI EGINDAKO LANAK

Urteko bi sei-hilekoetako jardunbideen betetze-mailari buruzko informazio-bilketa bana.

Bigarren sei-hilekoko jardunbideen betetze-mailari dagozkion adierazleei buruzko informazio-bilketa.

Bizkaia 21 Egitasmoak emandako aurrerapausoei buruzko bi informazio-saiotara joatea.

Eztabaida-talde horren egokitasunaren eta Bizkaiko Foru Aldundiak iraunkortasunari ematen dion garrantziaren lekuko da Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Saileko Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritzak bere langile guztiak Lurralde Plan Partziala (LPP) berrikusteko lanetan jartzeko abiarazitako ekimena; 2017an ere egin dira lan horiek, Bilbo Metropolitarrako Eskualde Egiturari dagozkion lanekin batera.

### BIZKAIA 21 EGITASMOAREN BESTE ZENBAIT HEDAPEN- ETA JARRAIPEN-LAN

Iraunkortasun-eragile izatekoak diren pertsonen prestakuntza ematea.

Iraunkortasun-eragileei laguntza- eta aholkularitza-zerbitzua ematea informazio-bilketetan.

Seihilekoko jarraipen-txostena.

Urteko jarraipen-txostena.

Jarraipen-lanari buruzko laburpen-eta argitaratzea webgunean.

Jarraipen-txostenak argitaratzea Atarilekun.

Prentsa-oharrak idaztea.

Bizkaia Maitean argitaratzekoak diren artikulak idaztea.

### 3. BIZKAIA 21 EGITASMOA (2011-2016): HEDAPENA



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA  
BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

BOB, 190. a. 2012, azaraila 6. Ostirak  
— 11249 —  
BOB nro. 190. Viernes, 6 de Julio de 2012

Lehen argitaraldia: 2011ko ekainaren 24ko 121. zenbakian.  
Bigarren argitaraldia: 2012ko uztailaren 6ko 130. Zenbakian. Zenbaki horretan, aldaketa hauek egin ziren: Iraunkortasunerako Bizkaiko Institutuaren organo koordinatzailea Ingurumen Sailaren esku uzten da. Gazteriaren alorreko jardunbide berriak eta Gaztedi Bizkaia Programa gehitzen zaizkio egitasmoari.

2013. urtean argitaratu zen **Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016): Garapen Iraunkorraren aldeko Bizkaiko Foru Aldundiaren estrategia**, eta harrezkero, gaiarekin lotutako 12 liburu baino gehiago argitaratu dira.



Egitasmoak banner propioa du **Atarilekun**, Bizkaiko Foru Aldundiko enplegatuen atarian. Kudeaketa-baliabide horrek gure erakundeari buruzko informazioa biltzeko aukera ematen du, baina, horretaz gainera, badu beste bertute bat ere: bilaketak bizkor egin, kostuak jaitsi eta zerbitzuak hobetu ahal izatea, alegia. Eta hori guztia zertarako? Bada, hobeto informatzeko, komunikatzeko eta kudeatzeko.

**Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoaren** barruan sortu zen **Bizkaia 21 Ataria**, eta hantxe jasotzen da egitasmoari buruzko informazio guztia.



**Bizkaimedia**



Munduari bere lanen berri emateko Bizkaiko Foru Aldundiak bere webgunean bertan darabilen leihoa da Bizkaimedia, eta han ere asko dira, baita atal horren izenburu gisa ere, Bizkaia 21 Egitasmoari buruz emandako informazioak.

Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) egitasmoak indarrean iraun duen tarte osoan, **Bizkaia Maitea** aldizkariak harekin lotutako 11 albiste eta erreportaje eta 3 monografiko eskaini dizkio, baita aldizkariaren webgunean ere.





## 4. PRESTAKUNTZA

<b>BIZKAIA 21 EGITASMOAREKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK</b>	
<b>Bizkaia 21 Egitasmoari buruzko ikastaroa, Bizkaiko Foru Aldundiko langileei eskainia (2013an eta 2014an)</b>	<p>Bizkaiko Foru Aldundiak bere langileentzat prestatutako prestakuntza-planaren barruan emana, 2013an eta 2014an. Hona hemen bertan landutako gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Bizkaia 21 Egitasmoaren jatorria.</li><li>- Zer da Bizkaia 21 Egitasmoa?</li><li>- Bizkaia 21 Egitasmoa osatzeko lanak. Parte-hartze tekniko eta politikoa.</li><li>- Nor dira iraunkortasun-eragileak eta zer eginkizun dituzte?</li><li>- Zuzendaritza Nagusien ardurak Bizkaia 21 Egitasmoan.</li><li>- Iraunkortasunaren 4 zutabeak: ingurumena, kultura, ekonomia eta gizarteak.</li></ul>
<b>Oinarrizko prestakuntza-ikastaroa, iraunkortasun-eragileei eskainia.</b>	<p>Zuzendaritza eta sail bakoitzaren lanak erraztea zen helburua. Hona hemen bertan landutako gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Iraunkortasunari buruzko oinarrizko ezaguerak.</li><li>- Iraunkortasunaren garrantzia eta zeharkakotasuna.</li><li>- Iraunkortasun-eragileak eta haien eginkizunak.</li><li>- Iraunkortasun-eragileak iraunkortasun-gaietan aditu izan beharrik ez duela argitu beharra.</li><li>- Lan-sarearen sistema, Bizkaia 21 Egitasmoaren jarraipen-lana egiteko giltzarri.</li></ul>

## 5. TXOSTENAK ETA MEMORIAK

Mota askotako txosten eta memoriak egin dira Bizkaia 21 Egitasmoaren bigarren ekinaldia indarrean egon den denbora-tartean, betiere hartan sakontzea helburutzat harturik:

<b>BIZKAIA 21 EGITASMOAREN BIGARREN EKINALDIAREKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK</b>	
<b>Bizkaia 21 Egitasmoaren formulazioari buruzko txosten eta dokumentuak.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitasmo berria martxan jartzeko abian jarritako parte-hartze prozesuaren barruan egindako AMIA tailerrei buruzko ondorioen txostena.</li> <li>- Egitasmo berria martxan jartzeko abian jarritako parte-hartze prozesuaren barruan Bizkaiaren geroa aztertzeke egindako tailerrei buruzko ondorioen txostena.</li> <li>- Egitasmo berriaren jiran diseinatutako ildo estrategikoak eta helburuak.</li> <li>- Egitasmo berriaren jiran diseinatutako jarduketak eta jarraipen-adierazleak.</li> </ul>
<b>Seihilekoko nahiz urteko memoriak, 2011tik 2016ra bitartean.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016): jarraipen- eta koordinazio-sistema. Seihilekoko ebaluazioak:</b> jarduketan betetze-maila aztertzea dute helburu, seihileko bakoitzean agregazio-maila desberdinekin egindako lanak aintzat hartuta.</li> <li>- <b>Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016): jarraipen- eta koordinazio-sistema. Seihilekoko ebaluazioak:</b> seihilekoko memorietan adierazitakoari jarraipen-adierazleen emaitzak gehitzen zaizkio.</li> </ul>
<b>Bizkaiko Foru Aldundiaren plan eta programek Aalborg+10 Konpromisoen alde egindakoari buruzko azterketak (2014).</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aztertu beharreko plan eta programak hautatu ondoren, haietako bakoitza Aalborg+10 Konpromisoekin kontrastatzen da lehenik eta behin, eta, gero, aztertutako 24 plan eta programa horietako bakoitzaren arduradun teknikoak azterketa berrikusten du, ondorioak ahalik zabalena izan daitezkeen.</li> <li>- Bizkaia 21 Egitasmoak berak aipatzen duen jarduketetako bat hartzen du oinarri txosten honek.</li> </ul>
<b>Bizkaia 21 Egitasmoaren eta Bizkaiko Aztarna Ekologikoaren arteko erlazioari buruzko azterketak (2015).</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bizkaia 21 Egitasmoko jarduketan % 70ek Aztarna Ekologikoaren kalkuluan eragina dutela egiaztatu zen.</li> <li>- Intzidentzia zuzena aztertzen bada, portzentajea nabarmen murrizten da, baina % 30etik gora betiere.</li> </ul>

## 6. LORPENAK

### 6.1. Ekimen Bikainen Katalogoa

Beheko taula horiek garbi erakusten dute Bizkaia 21 Egitasmoa betetzearren martxan jarritako ekimenen bikaintasuna; ekimenok bi eratakoak izan dira: batetik, egitasmoa koordinatzea eta/edo haren garapenerako babes logistikoa ematea helburu zutenak; eta, bestetik, Aalborg+10 Konpromisoekin bat etorri eta egitasmoaren egitura formalaren baitan sortuak.

Ekimenen artean, aipatzekoa da hainbat garapen-plan eta -programa jarri direla martxan, eta horrek zerbitzu berriak sortzea eta sortuak zeudenak indartzea ekarri duela.

A+1K. GOBERNATZEKO MODUAK		
<b>1.1.1. Koordinazioko politikak bultzatzea Bizkaiko Foru Aldundiko sailen artean</b>		
1.1.1.A. Iraunkortasun eragilearen izaera aintzatestea, horien eginkizuna onartuz eta kontzeptu hori barnean eta kanpoan ezagutaraziz.		
1.1.1.B. Iraunkortasun eragileen batzarren programa onestea eta burutzea.		
Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
BFAko iraunkortasun-eragileen foroa	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<a href="#">BFAko Zuzendaritza Nagusi guztietako eragileen zerrenda.</a>
1.1.1.D. Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) jarraitzeko eta ebaluatzeko programa bat egitea eta onestea.		
Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
B21Eren jarraipen- eta koordinazio-programa	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<a href="#">B21Eren betetze-maila</a> B21Eren koordinazio-, jarraipen- eta ebaluazio-txostenak
<b>1.1.2. Zeharkakotasuna sartzeko foru politiken indarra eta koherentzia hobetuko dituen antolakuntzako elementu gisa</b>		
1.1.2.A. Foru Politikak Koordinatzeko Batzordearen sorrera bultzatzea.		
Bizkaiko Lurralde Historikoko Iraunkortasunerako Batzardea		Bizkaiko Lurralde Historikoko Iraunkortasunerako Batzardea
1.1.2.B. Politikak zehazterakoan, zeharkakotasunerako tresnen eta metodologiaren inguruko aholkuak ematea Aldundiko pertsonalari.		
Bizkaia 21 Egitasmoari buruzko ikastaroa		
Salerosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari buruzko ikastaroa		

**A+2K. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KUDEAKETA****2.1.1. Hazkunde ekonomikoa eta ingurumen eta gizarte kostuak banantzea**

**2.1.1.A.** Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Bizkaiko Foru Aldundiak Europako eta nazioarteko ekimenekin gehiago bat egitea, iraunkortasun politikak finkatzea ahalbidetzeko.

**2.1.1.B.** Bizkaia 21 Egitasmoari, Tokiko Agenda 21i eta Aalborg+10 Konpromisoei buruzko trebakuntza kanpainak egitea, foru administrazioi langileentzat nahiz udal eta udalaz gaidiko entitateko langileentzat.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Euskadiko Deklarazioa, Europako herri eta hirientzako bide-orri berria Tokiko iraunkortasunari buruzko Bizkaiko Topaketak (2015, 2016)		<u>Euskadiko Deklarazioa</u> <u>Tokiko Iraunkortasunari buruzko Bizkaiko Topaketak</u>

**2.2.1. Iraunkortasun adierazleak erabiltzea iraunkortasunerako bidea ikuskatzeko eta ebaluatzeko**

**2.2.1.A.** Bizkaiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema mantentzea eta eguneratzea

**2.2.1.B.** Urtero kalkulatzeko Bizkaiko Giza Garapenaren Indizea eta horren bilakaera aztertzea

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Bizkaiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema (berritua) Foru Aldundiaren plan eta programek Aalborg+10 Konpromisoen alde egindakoari buruzko azterketak	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<u>Bizkaiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema</u>

**2.2.3. Administrazioek Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainarekin kooperatzea sustatzea**

**2.2.3.A.** Bizkaiko udalerriek Europako ekimenekin eta proiektuekin bat egitea sustatzea, politika iraunkorrak sartze aldera.

**2.2.3.B.** Bizkaiko Foru Aldundiak Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainaren proiektuetan eta ekimenetan parte hartzea.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Hiri eta Herri Iraunkorrei buruzko VIII. Konferentzia (ICLEI, 2016). Euskadiko Deklarazioa.		<u>Hiri eta Herri Iraunkorrei buruzko VIII. Konferentzia</u>

**2.3.1. Eskolako Agenda 21 indartzea**

**2.3.1.B.** Bizkaia 21 web ataria sortzea.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Bizkaia 21, iraunkortasunari buruzko Bizkaiko web ataria	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<u>Bizkaia 21</u>

**2.3.2. Iraunkortasunaren arloko esperientzien trukaketa sustatzea hezkuntzaren sektorean**

**2.3.2.A.** Bizkaiko ikastetxeetan topaketa iraunkorren antolakuntzan laguntzea.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Iraunkortasunaren aldeko Gazteen Bizkaiko Topaketa	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<u>Iraunkortasunaren aldeko Gazteen Bizkaiko Topaketa</u>

**2.3.3. Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa (PAES) eguneratzea, zabaltzea eta aplikazioa sustatzea**

**2.3.3.A.** Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa eguneratzea, Bizkaia 21 Egitasmo berriaren (2011-2016) eta iraunkortasunarekin lotutako beste plan edo programa batzuekin bat etorritik.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Iraunkortasun oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa 2020		<u>Iraunkortasun oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa 2020</u>

**A+3K. NATURA ONDASUN KOMUNAK****3.1.1. Biodibertsitatea babestea, arriskuan dauden espezieetan arreta berezia jarrita, eta espezie inbaditzaileen prebentzioa eta desagerraraztea sustatzea**

3.1.1.A. Babesturiko espezieak kudeatzeko planak egitea eta horien garapena bultzatzea.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Biodibertsitatea Babesteko, Hobetzeko eta Kudeatzeko Bizkaiko Estrategia	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<a href="#">Biodibertsitatea Babesteko, Hobetzeko eta Kudeatzeko Bizkaiko Estrategia</a>

**3.1.2. Ekosistemak babestea, enplegua sortzearen eta gizarte-ekonomiako garapenaren arloko azpiegitura berdeak bultzatuz**

3.1.2.B. Bizkaiko Milurtekoaren Ekosistemak Ebaluatzeko ikerketa proiektua bultzatzea.

3.1.2.C. Bizkaiko giza ongizaterako Ekosistemen Zerbitzuen Katalogoa egitea (hornidura, erregulazioa eta kulturakoak).

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Euskadiko Ekosistemetako Zerbitzuen Ebaluazioa	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<a href="#">Bizkaiko Ekosistemetako Zerbitzuen Ebaluazioa</a>
Natura eta ongizatea Bizkaian. Ekosistemetako Zerbitzuen Ebaluazioa; kudeaketari aplikatutako ikerketa-lana (liburua, katalogo eta guzti)		<a href="#">Euskadiko Ekosistemetako Zerbitzuen Ebaluazioa</a>
		<a href="#">Natura eta ongizatea Bizkaian. Ekosistemetako Zerbitzuen Ebaluazioa; kudeaketari aplikatutako ikerketa-lana</a>

**A+4K. KONTSUMITZEKO ETA BIZITZEKOEREDU ARDURATSUAK****4.1.1. Erosketa eta kontratazio publiko iraunkorreko politika garatzea**

4.1.1.D. Erosketa eta kontratazio publiko iraunkorrari buruzko edukiak sartzea karrera eta lanpostuko trebakuntza programan.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Salerosketa eta Kontratazio Publiko Berdeari buruzko ikastaroa		

**4.2.2. Kontsumo iraunkorrari eta horien onurei buruzko hezkuntza, egungo kontsumo ohituren aldaketa sustatuz**

4.2.2.A. Baliabideen kontsumo eta erabilera arduratsuaren arloko GAP programaren urteko kanpainak egitea.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Aktibatu + programa	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<a href="#">Aktibatu +</a>

**4.3.2. Biztanleko sortutako hiriko hondakinen kantitatea murriztea**

4.3.2.A. Bizkaiko Hiriko Hondakinen Prebentzio Plana 2010-2016 garatzea.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
On egiteko errezetak		<a href="#">On egiteko errezetak</a>

**4.3.4. Materia organikoaren aprobetxamendua sustatzea konposta sortzeko**

4.3.4.A. Materia organikorako edukiontzia hornitzea Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Bosgarren edukiontzia, materia organikoa gaika biltzeko sistema eta konpostatzeko baliabideak dituzten Bizkaiko udalerrien sarea	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<a href="#">Bosgarren edukiontzia duten Bizkaiko udalerrien sarea</a>

**A+5K. HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ETA DISEINUA****5.1.1. Ingurumen, ekonomi, gizarte, kultura eta osasun ezaugarriak sartzeari lurraldearen antolamenduaren garapena arautzen duen plangintza.**

5.1.1.A. Hirigintza iraunkorraren arloko Jardunbide Onen Katalogoa egitea, Bizkaiko lurralde guztietako lurralde plangintza eta hirigintza plangintza sartzeko, euren hirigintza plangintzak onesteko ahalmena dutenak barne direla, betiere eraikuntza teknologia berri iraunkorren erabilera sustatuz tokiko hirigintza plangintza.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Hirigintza iraunkorraren eta lurralde-antolakuntzaren alorreko Jardunbide Onen Katalogoa		

**A+6K. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA TRAFIKOA MURRIZTEA****6.1.6. Bizkaiko Foru Aldundiko eta haren mendeko herri entitateetako pertsonalaren mugikortasun iraunkorra sustatzea**

6.1.6.E. Urrutiko lan esperimentaleko ildoak abiaraztea nahi duten talde espezifikoei.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Bizkaiko Foru Aldundiaren Telelan Plana	Lehendakaritza Saila	<a href="#">Urteko Telelan Plana</a>

**A+7K. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA****7.2.2. Udalerri osasungarriaren kontzeptua sartzeari hirigintza plangintza**

7.2.2.C. Adinekoen Hiri Lagunak kontzeptuaren garapena sustatzea Bizkaiko udalerrietan

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
"Adinekoen Hiri Lagunak" proiektua zure komunitatean ezartzeko esku-liburua		<a href="#">"Adinekoen Hiri Lagunak" proiektua zure komunitatean ezartzeko esku-liburua</a>

**7.3.2. Pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko ohitura osasungarriak sustatzea**

7.3.2.A. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari laguntzea osasunaren prebentzio eta sustapen programetan.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Generakzioa, zahartze aktiboa	Gizarte Ekintza Saila	<a href="#">Generakzioa</a>

**A+8K. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA****8.5.2. Ikerketa zientifikoa sustatzea**

8.5.2.B. Lankidetzaren hitzarmenak ezartzeari EHUko Garapen Iraunkor eta Ingurumen Heziketako UNESCO Katedrarekin.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Bizkaiko Ekosistemetak Zerbitzuen Ebaluazioa Euskadiko Ekosistemetak Zerbitzuen Ebaluazioa	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<a href="#">Bizkaiko Ekosistemetak Zerbitzuen Ebaluazioa</a> <a href="#">Euskadiko Ekosistemetak Zerbitzuen Ebaluazioa</a>

**A+9K. BERDINTASUNA ETA GIZARTE JUSTIZIA****9.3.2. Gizarteratzea eta elkar ulertzea bultzatzea, kulturartekotasuna eta norberaren nortasuna lotzea galaraziz**

9.3.2.A. Elkartegintza indartzea herri eta gizarte partaidetza handiagoa izateko.

Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
GIZARTEGUNE, pertsona ahulenei hitza emateko gunea	Gizarte Ekintza Saila	<a href="#">Gizartegune</a>

A+10K. TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALERA		
<b>10.1.2. Politiken iraunkortasuna eta koherentzia garapenerako lankidetzako gure guztietan sartzea</b>		
10.1.2.A. Iraunkortasuna lankidetzako eta hezkuntza eta sentsibilizazioko ekintzetan sartzea sustatzea.		
Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Bizkaiko Lankidetzarako Gida Plana 2013-2015	Gizarte Ekintza Saila	<a href="#">Bizkaiko Lankidetzarako Gida Plana 2013-2015</a>
<b>10.2.1. Horretarako, Europako helburua betetzeko ekintzak bultzatuko dira, hots, negutegi-efektuko gasen emisioak murriztea, energi kontsumoa aurrezteko eraginkortasun neurrien bidez eta energia berriztagarrien ekarpena handitzea</b>		
10.2.1.A. Bizkaiko Energia Iraunkorrerako Estrategia zehaztea.		
Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Bizkaiko Energia Iraunkorrerako Estrategia (EESB 2020)	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	<a href="#">Bizkaiko Energia Iraunkorrerako Estrategia (EESB 2020)</a>
<b>10.3.1. Bizkaiko Aztarna Ekologikoa murriztea</b>		
10.3.1.A. Bizkaiko Aztarna Ekologikoa urtero kalkulatzea.		
Ekimen berritzaileak	Sail arduraduna	Informazioa
Bizkaiko Aztarna Ekologikoa	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila	Bizkaiko Aztarna Ekologikoa

## 6.2. Jardunaldiak: Tokiko iraunkortasunari buruzko Bizkaiko Topaketak

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Deustuko Unibertsitateak elkarlanean sortu eta sustatu zuten Bizkailab egitasmoa, bizkaitarrentzat lehentasunezkoak izan litezkeen alorretan ezaguera, garapena eta gizarte-berrikuntza bultzatzeko.

BIZKAILAB EKIMENAREN BARRUAN EGINDAKO JARDUNALDIAK	
2015	- Tokian tokiko Agenda 21 programek eta Bizkaia 21 Egitasmoarekin nahiz Aalborg+10 Konpromisoekin lotutako udal mailako iraunkortasun-planek egindako ekarpena aztertzeke abian jarritako ikerketa-lanaren aurkezpena.
2016	- Ikerketa-lana bukatu osteko ondorioak eta ahulgune nagusiak zuzentzeko egin beharrekoari buruzko eztabaida.

## 6.3. Hiri eta Herri Iraunkorrei buruzko VIII. Konferentzia (ICLEI)

Hiri eta Herri Iraunkorrei buruzko 8. Konferentzia (ICLEI)	
2016	- Apirilaren 27an eta 29n, Bilbon. - Bertako, Europako eta nazioarteko 1.000 ordezkari bano gehiagok parte hartu zuten. - Euskadiko Deklarazioa onartu zen.

## 7. LORPEN OBJETIBOAK. ZENBAIT ADIERAZLE GARRANTZITSU

Bizkaia 21 Egitasmoak 320 kudeaketa-adierazle ditu, eta horietako 30ek osatzen dute “aginte-eremu” deitu duguna. 30 adierazle horiekin lotutako lorpenen berri ematen da, hain zuzen, hor beheko taula horietan:

A+1K. GOBERNATZEKO MODUAK						
1.1.1. Helburua. Koordinazioko politikak bultzatzea Bizkaiko Foru Aldundiko sailen artean						
1	Iraunkortasun eragileek eginiko bileren kopurua					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
	5	3	2	2	2	2
1.1.2. Helburua. Zeharkakotasuna sartzea foru politiken indarra eta koherentzia hobetuko dituen antolakuntzako elementu gisa						
2	Iraunkortasun eragileek eginiko bileren kopurua					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
	74	96	96	105	104	100
1.2.1. Helburua. Zerbitzu publikoak eta baliabideak koordinatzeko, mankomunatzeko edo zati bat partzuegoetan biltzeko prozesua sustatzea, sistema iraunkorra bultzatuz						
3	Zerbitzu mankomunatuaren kop.					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
	-	21	21	22	22	22
1.2.2. Helburua. Herritarrentzako arreta hobetzea, desberdintasunak galaraziko dituen prestazio eta zerbitzu sistema eraginkor, irigarri eta ulergarriekin, betiere erabiltzailearengana zuzenduta Zuzentasuna eta iraunkortasuna						
4	Administrazio elektronikoen bidezko erabiltzaileen kop					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
	-	64.218	70.473	79.739	122.423	153.297
A+2K. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KUDEAKETA						
2.2.3. Helburua. Administrazioek Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainarekin kooperatzea sustatzea						
5	Europako ekimen eta proiektuekin bat egin udalerrien kop.					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
	107	107	107	108	108	108
2.3.2. Helburua. Iraunkortasunaren arloko esperientzien trukaketa sustatzea hezkuntzaren sektorean						
6	Bizkaia 21 atarian errakutsitako eskola esperientzia iraunkorren kop.					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
	-	-	40	15	19	36
2.4.2. Helburua. Irigarritasuna sustatzea eta iraunkortasun prozesuei buruzko informazioa ezagutaraztea planak burutzeko emaitzak, iraunkortasun adierazleak, etab						
7	Bizkaia 21 atariak urtean izandako bisiten kop.					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
	56.269	515.522	2.061.239	2.839.684	2.255.355	1.749.627
2.5.3. Helburua. Zerga iruzurra desagerraraztea, kargen banaketan ekitate eta gizarte justizia handiagoa lortzeko						
8	Ogasun eta Finantza Sailak aipaturikoetako zerga-iruzurra desagerrarazteko eginiko jarduketaren kpo					
	2011	2012	2013	2014	2015	2016
	3 tipos de actuaciones	3 tipos de actuaciones	3 tipos de actuaciones	3 tipos de actuaciones	3 tipos de actuaciones	3 tipos de actuaciones



<b>A+3K. NATURA ONDASUN KOMUNAK</b>						
<b>3.1.4. Helburua. Azpiegiturek dakarten ingurumen-eragina murriztea</b>						
<b>9</b>	<b>N Ingurumen erraginaren ebaluazioaren mendeko plan, programa eta proiektueen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	51	33	76	101	42	22
<b>3.2.1. Helburua. Airearen kalitatea hobetzeko udal jarduketak sustatzea</b>						
<b>10</b>	<b>Bizkaibusen erabiltzaileen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	28.397.645	28.255.792	28.057.075	27.261.452	26.126.773	26.486.435
<b>3.3.4. Helburua. Ur-ibilguen kalitatea hobetzea, egungo saneamendu eta arazketa planak osatuz</b>						
<b>11</b>	<b>Lehen mailako hornidura-azpiegiturak osatzeko eginiko jarduketan kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	6	4	10	9	5	13
<b>12</b>	<b>Lehen mailako hornidura-azpiegiturak osatzeko eginiko jarduketan kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	20	1	12	18	12	23
<b>A+4K. KONTSUMITZEKO ETA BIZITZEKOEREDU ARDURATSUAK</b>						
<b>4.2.2 Helburua. Kontsumo iraunkorari eta horien onurei buruzko hezkuntza, egungo kontsumo ohituren aldaketa sustatuz</b>						
<b>13</b>	<b>Urtean kontsumo arduratsuari buruz eginiko GAP programaren kanpainetako partaideen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	-	105	511	470	433	556
<b>14</b>	<b>N PAESen kontsumo iraunkorari buruz sartutako ekimen didaktikoen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	-	1	2	3	3	4
<b>4.3.4. Helburua. Materia organikoaren aprobeixamendua sustatzea konposta sortzeko</b>						
<b>15</b>	<b>Urtean konpostajerako bildutako materia organikoaren kantitatea (Tn/urtea)</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	-	3.428	3.544	3.647	5.969	6.613
<b>A+5K. HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ETA DISEINUA</b>						
<b>5.1.1. Helburua. Ingurumen, ekonomi, gizarte, kultura eta osasun ezaugarriak sartzeko lurraldearen antolamenduen garapena arautzen duen plangintzan</b>						
<b>17</b>	<b>Iraunkortasun irizpideekin onartutako LZPen kopurua</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	0	4	5	5	5	5

<b>A+6K. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA TRAFIKOA MURRIZTEA</b>						
<b>6.1.4. Helburua. Joan-etorri gehiago oinez edo bizikletaz egitea bultzatzea, ibilgailu pribaturik gabeko aisialdia barne dela</b>						
<b>18</b>	<b>Bizikleta-mailegurako tokiak dituzten garraio publikoko geltokien kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	-	-	19	19	20	20
<b>19</b>	<b>Hiri inguruko bidegorriak eta hiriko bidegorriak lotuta dituzten udalerrien kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	-	-	39	39	39	39
<b>A+7K. OSASUNAREN ALDEKO TOKIKO EKINTZA</b>						
<b>7.2.1. Helburua. Ingurumenaren kalitatearen xedea sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailen eta Foru Administrazioa osatzen duten entitateen jarduketetan</b>						
<b>21</b>	<b>Plangintzan Zonifikazio akustikoa sartu duten udalen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	1	5	10	16	26	30
<b>7.3.3. Helburua. Partaidetza aktiboa bizitza osoan eta adin guztietan sustatzea, gure zahartzea eta herritar guztien zahartzea hobetzeko</b>						
<b>22</b>	<b>Adinekoentzat eginiko informazio kanpainen kopurura</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	3	4	3	11	14	10
<b>7.3.4. Helburua. Etengabeko ikaskuntza sustatzea</b>						
<b>22</b>	<b>Kultur lehiaketen eta aisialdiko jarduera lehiaketen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	3	7	3	4	4	4
<b>A+8K. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA</b>						
<b>8.3.2. Helburua. Iraunkortasun sistemen ezarpena bultzatzea (Berdintasun, Kultur Aniztasun, Enpresa erantzukizuna, Ingurumen Kudeaketarako Sistemak, etab.) Bizkaiko enpresa-sarean</b>						
<b>23</b>	<b>Balorazio irizpideen artean iraunkortasun sistemen ezarpena sartuta duten dekretuen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	50%	33%	50%	66%	50%	62,5 %
<b>8.3.4. Helburua. Tokiko merkatuak eta dendak indartzea</b>						
<b>24</b>	<b>Bultzaturiko eskulangileen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	36	33	30	42	45	61
<b>8.4.2. Helburua. Kalitateko turismo iraunkorra sustatzea Bizkai osoan, lurraldean egonaldi ertain-luzea indartuz</b>						
<b>25</b>	<b>Sorturiko turismo produktu iraunkorren kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	24	60	18	24	12	50

<b>A+9K. BERDINTASUNA ETA GIZARTE JUSTIZIA</b>						
<b>9.1.2. Helburua. Ahaleginak bideratzea emakumeenganako indarkeria kasuak desagerrarazteko</b>						
<b>26</b>	<b>Nº total de víctimas acogidas en el Servicio de Acogimiento de Urgencia</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	-	-	171	107	171 (97 mujeres; 74 hijos/os)	176 (94 mujeres y 82 menores)
<b>27</b>	<b>Nº total de víctimas acogidas en los Programas residenciales de Atención Integral de media-larga estancia</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	-	-	40	54	62 (28 mujeres; 34 hijos/as)	66
<b>9.2.1. Helburua. Euskararen ezagutza eta erabilera zabaltea</b>						
<b>28</b>	<b>Euskaraz sustaturiko jardueren kopurua</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	1.400	1.350	922	905	965	890
<b>A+10K. TOKIAN TOKIKOTIK GLOBALERA</b>						
<b>10.2.1. Helburua. Horretarako, Europako helburua betetzeko ekintzak bultzatuko dira, hots, negutegi-efektuko gasen emisioak murriztea, energi kontsumoa aurrezteko eraginkortasun neurrien bidez eta energia berriztagarrien ekarpena handitzea</b>						
<b>29</b>	<b>Onetsitako udal edo eskualdeko energia iraunkorren planen kop.</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	7	8	9	9	10	17
<b>10.3.1. Helburua. Bizkaiko Aztarna Ekologikoa murriztea</b>						
<b>30</b>	<b>Bizkaiko Aztarna Ekologikoa</b>					
	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>
	3,1086	2,9298	2,8091	2,9400	-	-

## 8. ERANSKINAK

---

### 8.1. III. Eranskina: iraunkortasun-eragileak

---

Bizkaia 21 Egitasmoa martxan jarri zenetik, iraunkortasun-eragileak izan dira gure proiektuaren ardatzak, inolako dudarik gabe: Bizkaia 21 Egitasmoa idazteko osatu ziren gogoeta- eta eztabaida-taldeetan gogotsu parte hartu zuten, eta egitasmoa zenbateraino bete den aztertzeke beharrezkoa zen informazioa biltzen ere buru-belarri jardun dute.

Horregatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu eragile guztiei eta bakoitzari egitasmoari eskaini dioten denbora, ahalegin eta ilusio itzelagatik, eta baita hasieratik egindako ekarpen eraikitzaile bikainengatik ere.

Ainara Celaya Marcaida - Aitor Urcullu Guruceta - Alberto Martínez Miguel - Alfonso Andía Ortiz - Álvaro Arpón Zufiaur – Amaya Asensio de la Villa - Ana María Bajo Benítez - Arantza Otaolea Velado - Belén Batarrita Agirretxe - Benito Masa Hernández - Carlos Gil Madrazo - Cristina Zubiaur Prieto - Daniel Ruiz Larsson - Eider Ibarrondo Gordón - Eleder Aurtenetxe Pildain - Elixabete Arriaga Calvo - Estela Ángela Sánchez Garagorri - Estibaliz Biguri Fuente – Estibaliz Larrucea Marijuan - Francisco Aguiriano Miranda - Idoia Garai Tellechea – Igone Barriocanal Zabala - Iñaki Arrazola Madina - Iñigo Alvear Lekue - Iñigo Orue Moro - Irene Florez Cousillas - Irma Otegui Goiburu – Isabel Sánchez Robles - Jon Iñaki Mena Abasolo - José Andres Etxebarria Etxeita - José Arriola de la Vega - José Carlos Rico Gamarra - José Luis Aldayturriaga Bustamante - José Manuel Alonso Arana – José María Palacios Aristondo - Joseba Andoni Ugarte Yurrebaso - Josu Basozabal Zamakona - Juan José Duque Murua - Kepa Xabier Aretxabala Urbitarte - Luis Antonio Fuente Plaza - M<sup>a</sup> del Carmen de la Mora - Mainer Hurtado Saratxaga – Marta Barco Mondragón - Marta Vielba Postigo - Meder Zubiaurre Elguezabal - Mikel Unzueta Portilla - Miren Arantza Mardaras Izarza - Mónica de la Fuente Sánchez - Nerea Alvarado González- Olatz Unzurrunzaga Muro - Pedro Emparanza Bereciartua - Txema Chaves Rivera - Xabier Arana Eiguren.

## 8.2. IV. Eranskina. Bizkaia 21 Egitasmoaren hedapena. Egitasmoa garatzeko eta inplementatzeko produktu eta zerbitzuak

ATARILEKU		BIZKAIAMEDIA	BIZKAI MAITEA ALDIZKARIA
<b>2011</b>	Bizkaia 21: Garapen Iraunkorraren aldeko Bizkaiko Foru Aldundiaren Estrategia		Iraunkortasun-hezkuntzari buruzko <a href="http://www.bizkaia21.net">www.bizkaia21.net</a> ataria sortu
<b>2013</b>	Lankidetzarako II. Gida Plana	Bizkaiko Foru Aldundiak Ekonomia Solidarioaren Euskadiko I. Azokan parte hartu eta kolaboratu	Iosu Madariaga foru-diputatuarekin elkarriketa, Bizkaia 21 Egitasmoari buruz
<b>2014</b>	B21Eren betetze-maila	Bizkaiko Foru Aldundiak udal mailako eta udalerriaz goragoko eremuetako eraginkortasun energetikoari buruzko 54 proiekturi ia 1,9 milioi euroko finantzazioa eman.	Foru Erakundearen erreferentziatzeko sistema: B21E eta iraunkortasun-eragileak.
	Iraunkortasunari buruzko Udal Planak, Foru Aldundiaren webgunean	Bizkaiko Foru Aldundiak 523,8 milioi euroko iruzurra deskubritu 2014an, aurreko urtean baino % 12 gehiago.	
		Bizkaiko Foru Aldundiak 4,7 milioi euroko finantzazioa eman garapenerako lankidetzari.	
		Bizkaiko Foru Aldundiak telelan-modalitatea berritu.	
	Hiri-hondakinak bereizi eta gaika biltzeko Europak ezarritako % 50eko helburura iritsi Bizkaia.		
<b>2015</b>	Iraunkortasunean oinarritutako Hezkuntzarako Bizkaiko Ekintza Egitasmoa onartu	Iraunkortasunaren aldeko Gazteen I. Foroa Bizkaian.	Udal mailako iraunkortasunaren aldeko apustua
		Bizkaia estrategia propioa onartu, biodibertsitatea babestu, hobetu eta kudeatzearekin lotutako helburuak lortzeko.	
		Foru Aldundiak material didaktiko bat argitaratu (Euronet, 50/50), bigarren mailako hezkuntza-zentroek energia-aurrezpenarekin lotutako materialak izan ditzaten.	
		AKTIBATU + programa martxan jarri, aurrezten eta ingurumena zaintzen ikasteko.	
		Foru Aldundiak, EUDELe eta Emakundek berdintasun-sare bat sustatu udalerrri txikietan.	
		Foru Aldundiak 910.000 euroko finantzazioa eman UPV/EHUK enpresaren alorrean antolatutako 3 masterri.	
		Foru Aldundiak 5 udalerrri antolatutako ZAINDUZ programa berritu.	
		Euskadiko ekosistemetak zerbitzuen bilakaera aztertzea adostu Foru Aldundiak eta UPV/EHUK.	
Foru Aldundiak Formula Student egitasmoan parte hartzen duten gazteen lana aitortu eta babestu.			

ATARILEKU	BIZKAIAMEDIA	BIZKAIA MAITEA ALDIZKARIA	
2015		Foru Aldundiak iraunkortasunaren alde apustu egin zeharkako politika gisa.	
		Foru Aldundiak Euskadirekin lotura duten pertsona talentudunen sarea sortu, 65 herrialdetako 5.500 profesionalak osatua.	
		Foru Aldundiak Bizkaia iraunkorragoa lortzeko jardunbideei buruzko txostena argitaratu.	
		Turismo Iraunkorrari buruzko I. Jardunaldiak, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban.	
		Foru Aldundiak, bere agintaldiaren lehen 100 egunak igaro ondoren, Bizkaia Goazen irudi berria aurkeztu.	
2016		Berdintasunerako V. Foru Plana (2016-2019) onartu.	Elkarrizketa Elena Unzueta Ingurumeneko foru-diputatuarekin.
		Foru Aldundiak gazteak kontzientziatzeko "Off. Kontrola ez da maitasuna" kanpaina martxan jarri.	
		Foru Aldundiak Zalamako zohikaztegi eta bazkalekua berritzeko lanak bukatu, LIFE + Ordunte Iraunkor programaren barruan.	
		Foru Aldundiak energia-eraginkortasuneko planen inplementazioa bultzatu udalerrri eta mankomunitateetan.	
		Elena Unzueta: "Azken hamarkadan, Bizkaiak erdira jaitsi du bere aztarna ekologikoa".	
		Bizkaia desgaitasunen bat duten pertsonekin konprometituta.	"B21Ek iraunkortasuna bultzatu du 2005-2016 aldian".
		Foru Aldundiak kontratu publikoetan gizarte- eta ingurumen-klausulak sartzeari ekin.	
		Foru Aldundiak hiri-giroko gizartearen erronkei aurre egiteko bide-orria, Euskadiko Deklarazioa, onartu.	
		Bizkaiko Udalerriek komunitate integratzaile eta solidarioak sortzearen aldeko konpromisoa hartu beren iraunkortasun-planetan (Bizkaiko Udalerrri Iraunkorren III. Bilera)	
		2016an zerga-iruzurrari elkarrekin aurre egiteko plana onartu hiru foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak.	
	Atzeritarrei euskara hurbiltzeko hiztegia prest Bizkaiko zortzi udalerritan.		
	Unai Rementeria: "Udalerrri eta eskualdeek berebiziko garrantzia dute garapen iraunkorrean aurrera egiteko".		
2017	Bizkaiko Aztarna Ekologikoa		
	Bizkaiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema		